



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko azaroaren 5a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Adania Shibli


(Shibli-Umm al-Ghanam, 1974)

Adania Shibli palestinar narratzaile, antzerkigile eta saiakeragilea da.

Londres ekialdeko unibertsitateko hedabideen eta kultur ikasketen lizentziatua da eta doktore tesia egin zuen bertan hedabideek "terrorismoaren kontrako gerra" deitutakoan izan zuten paperari buruz. Berlinen ere ikasi zuen. Nottingham-eko unibertsitatean aritu da irakasle, baita Parisen ere, eta 2013az geroztik irakasle laguntzaile da Birzeiteko unibertsitatean (Ramallah, Palestina). Sei hizkuntza dakizki (arabiera, frantsesa, ingelesa, hebreera, koreera eta alemana) baina arabieraz baizik ez du idazten eta bere idatzi gehienetan gai nagusia bere jaioterria da. Jerusalem eta Berlin artean bizi da. Beirut39 idazle taldearen kidea izan da.

2016an bere hirugarren nobela argitaratu zuen, *Tafsil Thanawi* (*Detalle xume bat*), 1949an, Nakbaren garaian, soldadu israeldarrek neskato bat bahitu, bortxatu, erail eta are-pean sartu zutenekoaren benetako istorioan oinarrituta. Ingelesezko itzulpenak (*Minor Details*) Nazioarteko Booker sarirako izendapena jaso zuen 2021ean eta 2023ko LiBeraturpreis saria irabazi zuen, Alemaniako Litprom izeneko elkarte pribatu batek hegoaldeko emakume idazleei zuzenduta ematen duen saria. Saria urriaren 20an eman behar zioten idazle palestinarri, baina elkarteak gerra dela-eta bertan behera utzi zuen. Liburuaren munduko mila profesional baino gehiagok, tartean zenbait Literatura Nobel saridunek, manifestu bat sinatu zuten Shibli saria ematea exijituz.

Detaile xume bat



1948ko arabiar-israeldar gerran zehar zazpiehun mila palestinar baino gehiago izan ziren beren etxetik egotziak. Hondamendi horri deitzen zaio Nakba edo palestinar exodoa. Handik urtebete pasatxora, 1949ko udan, Israelgo estatu sortu berriak destakamentu militar bat bidali zuen Negev basamortura Egiptorekiko hegoaldeko muga zaintzeko, baita ingurua arakatzeko ere, han gelditzen ziren arabiarren bila. Espedizio horietako batean, soldaduek beduino talde bat aurkitu zuten, eta aurkikuntza hura krimen baten abiapuntua izan zen. Zenbait hamarkada geroago, XXI. mendearen hasieran, emakume palestinar batek gertakari horri buruzko artikulua batekin egin du

topo, eta, harekin lotutako detaile xume batekin obsesionaturik, bidaia arriskutsu bati helduko dio lurralde okupatueta zehar, egiaren bila.

Adania Shabliren argitalpenak euskaraz

Detaile xume bat (2016) **N SHI**

Kritikak esandakoak

“...Mehatxu, kontrol eta amaigabeko salbuespen egoeren bidez kolonizazioak txertatu du protagonistarengan —Shibli berarengan?— etengabeko zalantza, mugak zeintzuk diren jakiteko edo ongi eta gaizki dagoenaren artean bereizteko gaitasun gabedia eta, batik bat, muturreko indarkeria ekintzen gaineko ezikusia egiteko beharra. Urteetan hedatu den biolentzia egoera normaldu baten errelatoa nola egin behar den gogoetatzeko parada ematen digu “esfortzu guztiak bizirik irautera bideratuak dituen” narratzaileak, azalduz zer dela eta albo batean utzi dituen detaile batzuk eta bertze batzuk goratu: “arreta guztia detailerik xumeenetan jartzea modu bakarra baita egiara eta haren existentziaren behin betiko frogara iristeko”, eta posible baita “inoiz ikusi gabeko zerbaiten itxura imajinatzea edo sekula bizi gabeko gertakari bat berreraikitzea beste guztiek hutsaltzat jotzen dituzten zenbait detaile txikiri erreparatze hutsarekin...”

Jon Jimenez / Gara, 2024-09-08

“...Ane Irazabalek liburuaren hitzaurrean idatzi duen bezala, Adania Shiblien liburu honek eguneroko indarkeria sistematikoari ahotsa ematen dio eta bidaia bat balitz bezala planteatzen du, alegia, hilketa anker baten klabeak argitzeko asmoz, egiaren bila, antolatutako bidaia da. Palestinako historiaren azken 75 urteak detaile txikiez osatutako puzzle bat dira. Hedabideen lerroburuak bete ez dituz ten emakume, haur eta gizonen istorioek eta izen abizenek bete dituzte. “Soldadu israeldarrei gaizki erantzun die”, “Unibertsitatean grebak antolatu ditu”, “Harriak botatzen ari zen”..., edozein arrazoi txikiren gatik atxilotuak edo “kolpekari errazaren” biktimak izan diren herritarren zerrenda amaigabea da. Eta azkenaren azkenak, ahanzturarik umiliagarriena pairatu dutenak, Palestinako beduinoak izan dira. Batez ere, emakumeak. Sionismoaren proiektu kolonialak behe mailako gizakitzat jo ditu palestinarrak eta are gehiago beduinoak.

Liburu honetan, Shibli historiaren pasarte beltz ezezagun horri heltzen dio eta iraganera egindako sosegurik gabeko bidaia aurkezten du. Detaile xume baten bidez, palestinarrak jasaten duten garbiketa etnikoaren sustraietara doa eta maisuki erakusten du Israelek azkeneraino eraman duela egintza burutuen politika. Zalantzarik balego, Shibli muturren aurrean jartzen digu gatazka hau ez zela 2023ko urriaren 7an hasi.”

PostData, 2024-09-17

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Adania_Shibli

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9005>

Postdata

<https://postdata.elkar.eus/adania-shibli-detaile-xume-bat-liburuari-buruz/>